Irudi lauak

Poligonoak

Poligonoek elementu hauek dituzte: aldeak, erpinak eta angeluak.



Aldeak. Lerro poligonala osatzen duten **zuzenkiak** dira.

Erpinak. Aldeek bat egiten duten puntuak dira.

Angeluak. Aldeek osatzen dituzten angeluak dira.

Alde kopuruaren arabera, poligonoak honelakoak izan daitezke:

Triangelua	Lau-aldekoa	Pentagonoa	Hexagonoa
3 alde	4 alde	5 alde	6 alde

1. Irakurri poligonoei buruzko informazioa eta osatu esaldiak.

Poligonoek _____, _____ eta _____ dituzte. Alde kopuruaren arabera, poligonoak honelakoak izan daitezke: _____, _____, _____, _____ ...

2. Zenbatu poligono bakoitzaren aldeak eta sailkatu poligonoak.

- Poligono gorriak ____ alde ditu. _____ bat da.
- _____
- _____
- _____

3. Pentsatu eta erantzun.

- Poligono batek 5 erpin ditu. Zer poligono mota da? _____
- Poligono batek 6 angelu ditu. Zer poligono mota da? _____

4. Idatzi zer forma duten mosaiko bakoitzaren lauzek.

- Lauza laranja bakoitza _____ bat da.
- _____



- _____
- _____
- _____

5. Irakurri, marraztu laukia zure koadernoan, kasu bakoitzean, eta marraztu ebakitzeko lerroa. Bukatzeko, argazki bat bidali Classroom-era zure erantzunekin.

Anderren aroztegian, lau taula karratu daude. Taula bakoitza bitan moztu behar dute, ondoren adierazten diren piezak lortzeko. Nola egin dezakete?

- Bi triangelu.
- Bi lau-aldeko.
- Triangelu bat eta lau-aldeko bat.
- Triangelu bat eta pentagono bat.



6. Pentsatu eta esan zein den zuzena.

- ❑ Lau-aldedeko guztiak laukiak dira.
- ❑ Lauki guztiak lau-aldekoak dira.

Triangeluak aldeen arabera sailkatzea

Triangeluak hiru aldeko poligonoak dira.

Aldeen luzeraren arabera, triangeluak honelakoak izan daitezke:

Triangelu aldeberdina



3 alde berdin

Triangelu isoszelea

2 alde berdin

Triangelu eskalenoa



3 alde desberdin

1. Irakurri triangeluei buruzko informazioa eta osatu esaldia.

Aldeen arabera, triangeluak _____, _____ edo _____ izan daitezke.

2. Esan triangelu bakoitza zer triangelu mota den.



3. Pentsatu eta erantzun.

- Triangelu baten alde bat 8 cm-koa da, eta beste bat, 6 cm-koa. Zenbat zentimetrokoa izan daiteke hirugarren aldea, triangelu isoszelea izateko? _____
  Eta eskalenoa izateko? _____
- Triangelu baten bi alde 5 cm-koak dira. Zer luzera izango du hirugarren aldeak, triangelu aldeberdina izateko? _____
  Eta zer luzera izan dezake triangelu isoszelea izateko? _____

Lau-aldekoen sailkapena

Lau-aldekoak lau alde dituzten poligonoak dira.

Zenbat **alde paralelo** dituzten kontuan hartuta, lau-aldekoak honela sailkatzen dira:



1. Irakurri lau-aldekoei buruzko informazioa eta osatu esaldia.

Lau aldekoen kasuan _____ hartu behar ditugu kontuan. Horien arabera, lau-aldekoak _____, _____ edo _____ izan daitezke.

2. Begiratu lau-aldeko bakoitzari eta erantzun.



A
- Alde gorriak paraleloak al dira? _____
- Eta alde berdeak? _____
- Zer lau-aldeko mota da? _____

B
- Alde gorriak paraleloak al dira? _____
- Eta alde berdeak? _____
- Zer lau-aldeko mota da? _____

C
- Alde gorriak paraleloak al dira? _____
- Eta alde berdeak? _____
- Zer lau-aldeko mota da? _____

3. Esan lau-aldeko bakoitzean zeintzuk diren alde paraleloak. Ondoren, idatzi zer lau-aldeko mota den eta zergatik.



- Lau-aldeko morea _____ bat da, aldeak binaka paraleloak dituelako.
- Lau-aldeko berdea _____ bat da, _____ alde paralelo dituelako.
- Lau-aldeko horia _____ bat da, _____ alde paralelo dituelako.
- _____.
- _____.